

Eskoltak eta euskal gatazka

Segurtasunaren negozioa kolokan

EAEk iaz baino bederatzi milioi euro gutxiago gastatuko du mehatxatutako pertsonen babesean, baina gastu murrizketak ez dauka zerikusirik ETaren su-etenarekin, dio Lakuak. Sinetsi daiteke ala ez, baina pertsonen babesean egindako gastua eztabaida politikoaren beste elementu bat bihurtu daiteke. ETaren azken urratsak gezur hutsa direla esaten dutenak ari dira eremua prestatzen: segurtasunean murrizketarik ez, diote. Baina, espero dezagun, 2.000 eskolta gehiegi izango dira hemendik gutxira.

UNAI BREA

ETAk MEHATXATUTAKOEN babes zerbitzua, irakur bedi eskolta zerbitzua, zertxobait murriztu egin da azken hilabeteetan, erakunde armatuak bere jarduna etetearekin batera. Alabaina, ez dago modurik ziurtatzeko gauza bat bestearen ondorio zuzena denik, horren ardu-

ra daukan inork ez baitu publikoki hala adierazi. “Mehatxatutako babes-zerbitzua berrantolatzea”, Rodolfo Ares Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailburuaren berbak erabiltzearen, iazko udan ezagutu zen, ETAk “eraso-ekintza armatuen etena” iragarri baino egun

gutxi lehenago. Su-etena egon zitekeeneko zurrumurruak indar guztiz zebiltzan hartan, nekez sinetsi daiteke Herrizaingo Saileko arduradunek ETA urrats hori ematear zegoela ez zekitenik. Hala izan edo ez, iraileko lehenengo egunetan Euskadiko Eskolten Elkarteak salatu egin

90eko hamarkadan ETAk helburu militar izendatu zituenetik PP eta PSEko zinegotziak, Euskal Herria sail oparoa izan da eskolta zerbitzua eskaintzen duten enpresentzat. Orain, sektoreak krisi latza du ate joka.



WWW.RNWN.L



CRÓNICA DE CANTABRIA

Rodolfo Aresek esan du segurtasun pribatuan gutxiago gastatzeak ez diola erantzuten ETaren aktibitate ezari, bestelako irizpide batzuei baizik. Sailburuak hala ihardetsi zien ETaren balizko su-eten baten aurrean –iazko udaz ari gara– ardura gabe jokatzeari leporatu ziotenei, 50en bat pertsonari eskolta kendu eta gero. Kritikak eskoltengandik eurengandik etorri ziren batez ere.

zuen 50 pertsona ingururi –kargu publikoak, enpresariak eta kazetariak– babes-zerbitzua kendu izana, eta horrek behartu zuen Rodolfo Ares publikoki esatera neurriak ez zeukala zerikusirik ETaren balizko su-eten batekin, zerbitzuaren berregokitze batekin baizik. Handik hiru egunera, ETaren komunikatua kaleratu eta balizkoa zena egia bihurtu zen.

Rodolfo Aresek orduan gehitu zuenez, eskolta kendu zitzaizen 50 lagun haiek ez zuten garai batean bezainbateko arriskua ETaren jomugan egoteko, aspaldi utzita baitzituzten garai bateko kargu edo bestelako ardurak. Geroztik, ez da jakin beste inori kendu zaionik eskolta, hala eskatu duten gutxi batzuei izan ezik. Kopuru zehatzak ezagutzerik ez dago, kasu gutxi iristen direlako hedabideetara. Rodolfo Aresek bere momentuan zuhurtzia eta isiltasuna eskatu zizkien babes-zerbitzuari buruzko datuak zituztenei, eta badirudi aintzat hartua izan dela sailburuaren eskaria. Hala, zeresana sortu zuen bakarretakoa Jose Maria Ruiz Urchuegui izan zen; Adegiko lehendakari ohiak gutun irekia bidali zion urrian Herrizaingoko arduradun nagusiari,

aurrerantzean bere eskoltari uko egingo ziola adierazita. Handik gutxira, *Público* egunkariak esan zuen mota horretako erabakiak ez direla hain bakanak, eta Ertzaintza eta segurtasun enpresa pribatuak aipatu zituen informazio horren iturri. Beti ere iturri horien arabera, eskoltarik gabe ibiltzeko eskariak etengabeak izan dira beti, eta ez dago esaterik –ez behintzat iazko udazkenean– eszenatoki politiko berriak kopurua handitu duenik.

Murrizketa bai, baina norainokoa?

Laburtuz, esan daiteke eskolta-zerbitzuen erabilera ez dela bizi murriztu ETak su-eten aldarrikatu zuenez geroztik. Eta eskolta-zerbitzuak diogunean, batez ere segurtasun-enpresa pribatuez ari gara. Kontu hauei buruzko iturrietako bat eskoltak eurak izaten dira; hamaika foro daukate Interneten. Horietako batean irakur dezakegu 2009an Hego Euskal Herrian 1.492 pertsonak behar zutela eskolten zaintza, eta horien %86k enpresa pribatuetatik jasotzen zutela zerbitzu hori. Enpresa horientzat aurreikusita dagoen aurrekontua, 2011rako, 88 milioi eurokoa da. Iaz baino bederatzi milioi gutxiago.

Azaroan, Eusko Legebiltzarreko Herrizaingo Batzordearen aurrean bere sailaren aurrekontuak azaldu zituenean, Rodolfo Aresek berretsi egin zuen murrizketaren zergatia ez zela ETaren su-etenaren –ordurako publikoa zena–, baliabideen erabilera egokiago baten beharra baizik. Alegia, krisian gaudela. Zehazki, eskolta-zerbitzuen lehiaketan oso kontuan hartu da prezioa, Mikel Martinez (EAJ) batzordeko kideak esplikatu digunez, eta bilera haren akta irakurrita Aresen hitzetatik ondorioztatu daitekeenez, sailburuak hain garbi hitz egiten ez badu ere. Martinezek dioskunez, enpresa guztiek doitu dituzte prezioak euren eskaintzetan.

Negozio handi bati adio

Bitxiena da, legebiltzarkide jeltzaileak adierazi digunez, gero eta enpresa gehiago aurkezten dela lehiaketara. Denborak aldatuz doaz, baina inertziak, itxuraz, ez hain azkar; ez dezagun ahaztu Euskal Herria negozio eremu bikaina izan dela segurtasun-pribatu enpresentzat ETak publikoki adierazi zuenetik PPko eta PSEko zinegotzi guztiak, besteak beste, bere ekintzen helburu izango zirela. Urte askoan aparretan izan dira eskoltak eskaintzen zituzten enpresak, nahiz eta –berriro jo dugu Interneteko foroetara– horretan ziharduen langile saldoak, 2.000 inguru 2009ko datuen arabera, ez ditu lan-baldintza gozoak izan. Orain krisi larri bat eztanda egitear dago sektorean, eta dagoeneko hasita daude langileen kaleratzeak. ETaren urtarrileko agiriarekin hasitako prozesua bide onetik badoa, negozioa hondoratuko da, behinola loratu zen bezala. 90eko hamarkadaren hasierako egoerara itzuliko ginatke segurtasunari dagokionez: polizia aski litzateke kargu publikoen babes beharrak asetzeko, beste edozein herrialdetan bezala.

Atzerapauso bakar bat ere ez

Epe ez oso luzean edonork irudikatu dezakeen panorama da hori. Baina honezkero argi dirudi epe hori luzatzen saiatuko direla batzuk. Espainiar alderdi handiek,

Hamabi sortatan banatutako zerbitzua

88 milioi eurokoa da 2011n pertsonen babeserako aurreikusita dagoen gastua, baina kopuru hori beste partida handiago baten zatia da. Izan ere, EAEko Herrizango Sailak segurtasun-enpresekin egindako azken kontratuak hamazortzi hilabetezko iraupena du, 2010, 2011 eta 2012 urteetan banatua.

2010eko martxoan egin zen publiko, Ares sailburuaren agindua baten bitartez, zein enpresari emango zitzaizkien zerbitzuok, hala nola lehiaketaren xehetasunak. Hemeretzi enpresa aurkeztu ziren guztira,

eta zazpik lortu zuten kontraturen bat. Horietan, Casesa nabarmentzen da, kontratu osoaren %35 inguru eraman baitu. Guztira, 144 milioi euroko gastua (gehi BEZa) zegoen aurreikusita aipatutako epealdirako, baina azkenean %7an murriztu zen: 135 milioi. Rodolfo Aresen garbi utzi nahi izan zuen murrizketak ez ziola zerbitzuaren kalitateari eragingo, eta bere sailak egindako negozioaz onaren emaitza zela. "Segurtasun maila orain arte bezala mantenduko da", esan zuen. Ordurako, ETA su-etenean zegoen.

Zerbitzua ez da trinkoa, hamabi lote edo sortatan banatuta dago. Berez lau dira, eta horietako bakoitza EAEko hiru probintzietarako lehiatzen da. Aldi berean, lote bakoitzerako lau enpresa kontratatuta daitezke.

Lau sortak hauek dira: epaile eta magistratuen babesa; PPko hautetsi eta politikarien babesa; PSOE-EEko hautetsi eta politikarien babesa; eta gainerakoak. Laugarren multzo horretan sartzen dira beste alderdie-tako hautetsiak, ETak mehatxatuta-ko gainerako pertsonak eta genero-indarkeriaren biktimak.

batez ere PPK, eta haien hurbileko sektore batzuek, behin eta berriz aldarrikatu dute ez dugula ETaren adierazpenez fidatu behar, erne egon behar dela, segurtasun-neurriak ez direla inola ere leundu behar. Mezu bera darabilte segurtasun-enpresetako arduradunek, poliziek... Baita eskolta lana egiten dutenek ere: foroetan patroiaz gaizki esaka aritzen dira, baina beste alde batetik beren zeregina- ren beharra azpimarratzendute, ideologiaz gainezkako diskurtsoa erabilita. Dena ez da negozioa, beraz. Gauzak horrela, eskoltetan egiten den gastu publikoa beste osagai bat izan daiteke borroka politikoan. Segurtasunean eginda-ko gastu-murrizketa esanguratsu bat "terrorismoaren kontrako borrokan" atzerapausotzat joko lukete, bake prozesuan aurrerapau- sorik gura ez duten sektoreek.

"Nolanahi ere" dio Mikel Marti- nezek, "irakurketa bat baino gehiago dago eremu honetan. Egia da alde batetik ordezkari politikoek esaten dutena esaten dutela, hori baita beraien estrategia. Baina bestetik, segurtasun hutezko arazo bat dago. Alegia, nik uler dezaket luzaroan egun eta gauz babestuta egon diren pertsonen posizioa, bat-batean babes hori gabe geratuko balira hau guztiau amaitu egin dela erabat segu- ru jakin gabe. Batzuk kexatu dira dagoeneko, babesa guztiz kendu gabe, murriztu egin dietelako. Eskol- ta bi zituzten batzuek bakararra dute orain, eta bakararra zuten batzuei hori kendu zaie, eta kontrazaintza zerbi- tzua besterik ez dute jasotzen".

Aurrekontuan murrizketak egon litezke aurten bertan?

Gai honek datozen urteetan zein bilakabide izango duen igartzeko,

interesgarria izango da ikustea 2011ko 88 milioiko aurrekontu hori zertan den urte amaieran. Martinezek gogorarazi digunez, pertsonen babesera xedatzen den diru-kopurua oso aldakorra da, urtearen barruan ere: "Gauza jaki- na da, eta askotan gertatu da, egoe- raren eboluzioaren arabera diru asko sartu behar izatea ekitaldiaren erdian".

Egoeraren eboluzioa aipatzen duenean zera esan nahi du Martine- zek: sarritan ETak, hitzez edo ekin- tzaz, bere jomugan jarri duela ordu- ra arte mehatxu horretatik libre zegoen sektore bat. Horrek babes- neurriak areagotzera behartu du, beraz diru gehiago gastatzera. Gerta liteke kontrakoa, edo bestela esanda, zilegi litzateke 88 milioien zati bat beste zeregin batzuetarako erabiltzea, ETaren oraingo jarrera sendotu ahala? ■



